



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2023ko maiatzaren 2ko bilkura

Bi mila eta hogeita hiruko maiatzaren 2an, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deliua izan-eta, legeak behar izan duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OCAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, GOICOECHEA Inaki, IDIART Claudine, INARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramunxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OCAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Eloi, CHAMALBIDE Corinne.
Bilkurako idazkari izendatua izan da : CASIRIAIN Elena.

Delialdiaren eguna : 2023ko apirilaren 28a
Affixatze eguna : 2023ko apirilaren 28a

11. ERABAKIA: ARTZAINZA HOBEKUNTZENTZAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA: KABALEN MENDIRAKO SARBIDEAREN SEGURTATZEA

(9.1 NOMENKLATURA)

Auzapezak aurkeztu du artzaintza hobekuntzen proiektua, hots ARTZAMENDIKO herriko bazkalekuen hobetzea (D 364, D 500 eta D505 lur sailak) eta kabalen mendian atxikitzea, sei xelaia eta bi pasabide kanadiar ezarri.

Auzapezak azaldu du proiektu horren aztertzeko, Euskal Herriko Laborantza Ganbarako artzaintza zerbitzuen eta herriko etxean laborantza eta bideen gaiez arduratzen diren hautetsien artean gogoeta bat eraman dela.

Auzapezak, aipatu ekintzarentzat aurreikusten diren gastuak aurkeztu ditu:

-Euskal Herriko Laborantza Ganbararen aurrekontua txostenaren muntatzeko:

1 350 euro ZK

-Frédéric DUTREY enpresaren aurrekontua aipatu lur sailen motoxehatzailearekin garbitzeko:
11 340 euro ZK

-SAS Ernaut TP enpresaren aurrekontua, 6 xelaik eta 2 pasaila kanadiarren hornitzeko eta ezartzeko:
21 080 euro ZK

Herri Biltzarrek, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

KONTUAN IZANIK, interesgarria dela herriko bazkaleku kolektibora kabalen eramatan segitzea,

KONTUAN IZANIK, horretarako artzainei lan baldintza onenak eskaini behar zaizkiela,

KONTUAN IZANIK, bi lur sailetan ikusi diren beharrak,

KONTUAN IZANIK, 33 770 euro ZK-ko aurrekontua (lanak + laguntza teknikoa),

KONTUAN IZANIK, honako finantzamendu plana:

- Finantzazio tasa: %70

- Dirulaguntza: 23 639 euro

- Autofinantzazioa: 10 131 euro

ONARTU DU, gorago aurkeztu den ekintzaren egitea,

EHLGko artzaintza zerbitzuari **AGINDU DIO** proiekturako laguntza teknikoa eskainzea,

BAIMENA EMAN DIO, Auzapezari, ekintza horri buruzko agiri oro izenpetzeko eta behar diren izapideen egiteko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balitzko boz kopurua : 13

ALDE : 14

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hila bete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEN, 2023ko maiatzaren 2an
Auzapeza,
Jean-Marc OCAFRAIN

Betegarria bliakatu den akta,
2023/05/11an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatuta ondoan 2023/05/11an.